

Unitate didaktikoa

Adios ene maitia

1/2

Moldaketa honetan ezker eskurako ARPEGIO-linea bat aurkeztu dugu, oso berezia eta ohikoa herri-musikako eta pop-eko hainbat estilotan. POSIZIO IREKIKO KORTXEA-ARPEGIO bat da. Haren egiturari hobeto heltzeko, errepara diezaiogun aurrena POSIZIO ITXIKO AKORDE bati eta horrek sortzen duen ARPEGIO-egitura posibleetako bati:

Am

Akordea posizio itxian

Arpegioa posizio itxian

Bistan denez, eskua Am akorde horretako hiru noten gainean POSIZIO ITXIAN ipintzen badugu, eta KORTXEA-ARPEGIO bihurtzen baditugu, hau bezalako linea bat sor dezakegu. Baina AKORDEAREN hiruduna (alegia, POSIZIO ITXIAN erdian dagoena, OINARRIZKOAREN eta bostunaren artean) hartu eta ZORTZIDUN bat gorago eramaten baldin badugu, AKORDE horren beraren POSIZIO IREKIA sortuko dugu; horren ondorioz, kokapen horietako notez ARPEGIO-linea bat sor dezakegu.

Am

Akordea posizio irekian

Arpegioa posizio irekian

Moldaketa honetan ARPEGIO IREKIKO linea aukeratu da, bertan nota bat, OINARRIZKOA, BIKOIZTU dugularik. Hauexek dira, beraz, OINARRIZKOA bikoiztuta duen ARPEGIA IREKIA eta hartatik abiatuta sortu dugun ARPEGIO-LINEA:

